



JON TXOPITEA ZUGADI, BARRUNDIAKO UDALEKO IDAZKARIA,

ZIURTATZEN DUT: Barrundiako Udaleko Alkate-Lehendakariak 2020ko ekainaren 26an, **276** Zenbakia duen **Erabakia** hartu zuela, honako hau, hitzez hitz, esaten duena:

IKUSIRIK: Urtero Nafarroa Oinez Fundazioak egiten dituen ahaleginak Nafarroako herrialdean euskara bultzatzeko.

GERTUA IZANIK: Nafarroa Oinez Fundazioaren helburuak honako hauek dira:

- Euskara lehentasun: euskalduntze prozesuan konpromisoa. Euskalduntze prozesuan Nafarroa Oinez Fundazioak Nafarroaren euskalduntze prozesuan izandako protagonismoa funtsezkoa izan da, berebizikoa, eta horretan jarraitzeko asmoa dugu. Nafarroa Oinez Fundazioak prozesu horretan izan behar duen konpromisoa behar-beharrezkoa da, erronka hori izan baita betidanik erakundearen lehentasuna.

- Ikastola denona da: kooperatibismoa eta gizarte-lana. Ikastolak zerbitzu publikorako joera du, eta, hortaz, gizartera zabaltzeko helburua beti izan behar da ikusmiran. Ikastola herriaren zerbitzura ere jarri behar da eta horretarako, eskualdeko gizarte-eragile aunitzekin batera lan egin beharra dago; eta garbi izan behar da beti euskal kulturaren zabaltzea dela lehentasuna.

ZERA ERABAKITZEN DUT

LEHENA.- Nafarroa Oinez Fundazioak aurrez aipatutako lan-ildoak gauza ditzan egindako ahaleginak suposatzen dituen gastuei aurre egiteko 300,00 eurotako dirulaguntza luzatzea (2020ko Aurrekontu Orokorretako 335.481.003 partida).

BIGARRENA.- Aurrenean aipatutako dirulaguntza berehala ordaintzea.

HIRUGARRENA.- Honako erabaki hau Nafarroa Oinez Fundazioari jakinaraztea.”

Eta hala jasota gera dadin behar diren ondorioetarako honako hau luzatzen dut, onetsi eta zigilitua, Ozaetan 2020ko ekainaren 26an.

